Olaberrian, 2003ko maiatzaren 23an.

En Olaberria, a 23 de mayo de 2003.

## BILDURIK

## REUNIDOS

TXOMIN MENDOZA PEREZ jauna, Olaberriko Alkate-Lehendakaria, Udalaren izenean eta ordezkapenean.

D. TXOMIN MENDOZA PEREZ, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Olaberria, en nombre y representación del Ayuntamiento.

FELIX URKOLA IRIARTE jauna, Lazkaoko Udaleko Alkate-Lehendakaria, Udalaren izenean eta ordezkapenean.

D. FELIX URKOLA IRIARTE, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Lazkao, en nombre y representación del Ayuntamiento.

AITOR AUZMENDI ASURABARRENA jauna, Ataungo Udaleko Alkate-Lehendakaria, Udalaren izenean eta ordezkapenean.

D. AITOR AUZMENDI ASURABARRENA, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Ataun, en nombre y representación del Ayuntamiento.

## AURREKARIAK

## ANTECEDENTES

1999-2003 legealdiaren hasieratik Lazkao, Ataun eta Olaberriko Udalek adineko pertsona ezinduentzako Zaintza Zentru baten behar nabaria somatu izan dute, beren udalerrietan sortutako beharrei erantzun ahal izateko eta gaur egun funtzionamenduan dauden zentruetan eskaintzen den plaza kopuru urriari aurre egiteko.

Desde el inicio de la legislatura 1999-2003, los municipios de Lazkao, Ataun y Olaberria han venido observando la imperiosa necesidad de un Centro de Atención para personas mayores dependientes, para poder responder a las necesidades presentadas en estos municipios y dar una salida a la insuficiencia de plazas existentes en los centros que ya están en funcionamiento.

Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuarekin elkarrizketa eta harreman ugari eduki dira urte hauetan, behar hori adieraziz eta arazoari irtenbide egokia eman nahian.

Durante los últimos años se han mantenido numerosas conversaciones y contactos con el Departamento de Servicios Sociales de la Diputacón Foral, manifestando la mencionada necesidad, y con la intención de dar una solución adecuada al problema existente.

Elkarrizketa hauen fruitua izan zen 2002ko urriaren 16an Gizartekintza Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean sinatutako akordioa, akordio honek zera jasoz, beste zenbait punturen artean:

Fruto de estas conversaciones fue el acuerdo firmado entre el Departamento de Servicios Sociales y el Ayuntamiento de Lazkao el 16 de octubre de 2002, acuerdo que, entre otras cosas, recogía lo siguiente:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak lehiaketa deituko zuela Lazkaoko Udalak lagatutako lursailetan zentru berria eraikitzeko eta berau kudeatzeko.
- Gizartekintzak Lazkaon egingo duen gerontologia zentruko plazetan sartzeko lehentasuna bermatuko diela Lazkao, Ataun eta Olaberriko herritarrei.

- Que la Diputación Foral de Gipuzkoa convocaría concurso para la construcción y gestión de un nuevo centro en los terrenos cedidos por el Ayuntamiento de Lazkao.
- Que el Departamento de Servicios Sociales garantizará a los municipios de Lazkao, Ataun y Olaberria la prioridad para ingresar en la plazas del centro gerontológico que construirá ese Departamento en Lazkao.

Eta aurretik adierazitakoa kontuan izanik, Gizartekintzak Lazkaon eraikiko duen zentru gerontologikoan izango duten lehentasunari dagokionez, Lazkao, Ataun eta Olaberriko Udalek zera

Y teniendo en cuento lo expuesto anteriormente, y en relación a la prioridad en cuanto a las plazas del centro gerontológico que construirá el Departamento de Servicios Sociales en Lazako, los municipios de Lazkao, Ataun y Olaberria

## ADOSTEN DUTE

## ACUERDAN

LEHENA: Hiru udalerriei dagozkien plazen esleipenaren jarraipena burutzeko organoa eratuko da zentrua martxan jartzen den momentuan.

PRIMERO: en el momento en que se ponga en funcionamiento el centro, se creará un órgano para el seguimiento de las adjudicaciones de las plazas que correspondan a los tres municipios.

Organo honetako partaide izango dira ondoren zehazten diren karguak:

Formarán parte de este órgano los cargos que se citan a continuación:

- Udalerri bakoitzeko Alkatea
- Udalerri bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzia.

- El /La Alcalde/sa de cada municipio
- El/La Concejal de Servicios Sociales de cada municipio.

BIGARRENA: hitzarmen honen ondorioz, sinatzen duten udalerriek obligazio ekonomikoren bat hartu beharko balute beren gain etorkizunean, obligazio horiek hiru udalerrien artean ordainduko lirateke, udalerri bakoitzak duen biztanle kopuruaren proportzioan.

SEGUNDO: si como consecuencia de la firma de este convenio, en un futuro surgiera alguna obligación de carácter económico que deban asumir los municipios firmantes, esas obligaciones se abonarán entre los tres municipios, en proporción al número de habitantes de cada uno.

**Eta horrela jasota gera dadin, bi alderdiek beren onespena ematen diote agiri honetan ezarritakoari, ale hirukoiztuan izenpetuz, idazpuruan adierazitako toki eta egunean.**

**Y para que así conste, los otorgantes se afirman y ratifican en los expuesto en el presente documento, firmándolo en triplicado ejemplar, en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento.**

**OLABERRIKO UDALA**

**Izp./Fdo.: Txomin Mendoza Perez**

**LAZKAOKO UDALA**

**Izp./Fdo.: Felix Urkola Iriarte**

**ATAUNGO UDALA**

**Izp./Fdo.: Aitor Auzmendi Asurabarrena**